

Gure enpresaren diru-sarrerak esperientzia gastronomiko tematikoak eskaintzetik sortuko dira, non bezeroek ez duten soilik janaria ordaintzen, baizik eta esperientzia oso bat: giroa, musika, dekorazioa, dinamika soziala eta entretenimendua. Gure bezeroak prest daude balio erantsi hori ordaintzeko, produktuaren berezitasuna, pertsonalizazioa eta eskaintzen dugun esperientzia gogoangarritasuna kontuan hartuta.

Hasiera batean, gure diru-sarrera nagusiak ordainketa bakarreko zerbitzuetatik etorriko dira. Horien artean egongo dira ekitaldi tematikoen antolaketa eta food truck zerbitzu osoa. Kasu horietan, bezeroak prezio finkoa ordainduko du zerbitzu integrala jasotzeagatik, hau da, janaria, zerbitzaria, logistika, musika, jarduerak eta giro tematikoa barne. Diru-sarrera mota honek gure fakturazioaren %60 eta %70 artean ordezkatzeko du.

Bestalde, food truck zerbitzuak eta janariaren salmenta zuzena ere izango dira diru-sarrera osagarri garrantzitsuak. Menu edo produktu unitarioen salmentak %15 eta %20 artean osatuko du gure diru-sarreraren zatia. Halaber, ekitaldi handietan edo marka ospetsuekin lankidetzan aritzean, publizitate edo marka baterako sarrera gehigarriak sortuko dira, eta honek %5 eta %10 arteko pisua izango du.

Negozioa handitu ahala, diru-sarrera errepikariak ere garatuko ditugu. Horien artean egongo dira harpidetzak edo membership sistemak, bezero errepikariei eskaintza bereziak, deskontuak eta lehentasuna eskaintzeko. Diru-sarrera mota honek %5 eta %10 artean osatuko du gure fakturazioa. Etorkizunean, gure kontzeptua frantzizatzeko edo erabiltzeko eskubideak ere eskainiko ditugu, eta diru-sarrera mota horrek %5 eta %15 arteko pisua izan dezake, hazkunde-fase aurreratuan.

Prezioei dagokienez, bi eredu erabiliko ditugu: prezio finkoa produktu eta zerbitzu estandarrentzat, eta prezio dinamikoa ekitaldi handietarako, data espezialetarako eta pertsonalizazio maila altuagoa duten eskaeretan.

Azken batean, gure bezeroek gure esperientziak ordainduko dituzte, ez janaria bakarrik. Zerbitzua azkarra, eroso, dibertigarria eta berezia da, eta horrek gure enpresa lehiakideengandik bereizten du. Hori dela eta, gure negozio-eredua anitza, eskuragarria eta eskalagarria da, eta hainbat diru-sarrera iturri izateak gure proiektuaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna bermatzen du.